

## 1. BALIO PROPOSAMENA:

Gure balio proposamena Donostian kokatuko den hostel bat da. Gure hostela besteetatik ezberdintzeko zerbitzu eskusibo ugari eskainiko ditugu. Zerbitzu horien artean hartzaindegi bat dago.

Hartzaindegi honi esker gurasoak lasai joan daitezke Donostia bisitatzera umeengatik kezkatu gabe. Honi esker gurasoek gehiago disfrutatuko dute Donostia bixitatzen eta umeekin egin ezin diren gauzak egiteko ahalmena edukiko dute.

Beste zerbitzuetako bat animaliak zaintzeko lekua izango da, non maskoten jabeak hostelean bertan utzi dezakete beraien animalia. Animalia horiek leku apropos batean egongo dira dagokion maskoten janaria eskainiko diete eta deskantsu zona bat egongo da prestatua, lo egiteko zonalde batekin eta jolasteko zona egokitu batekin.

Lehen aipatutako zona egokitu horiek plaka insonorizatu ez beteta egongo dira, horrela ume eta animaliak ondo egoteko zona edukitzeko, baina era berean hosteleko beste pertsonak lasai egon daitezke.

